

## Euskal AEn 159.000 enpresa ari ziren 2015eko hasieran

**Alten %91,5 eta baje %90,6 hiru langile baino gutxiagokoetan, geruza dinamikoena**

2015eko hasieran, Euskal AEn 158.810 enpresa ari ziren, 176.384 establezimendutan (lantegiak, dendak, bulegoak...), Eustaten datuen arabera.

Aurreko urtearen aldean, Administrazio publiko, hezkuntza eta osasungintza sektorean establezimenduak %3,9 gehiago dira; Informazio eta komunikazioetan %3,7; Zerbitzuen beste jardueretan %2,8; Jarduera profesional eta lagungarrietan %1,1. Establezimendu gutxiago: Lehen sektorean (%-7,5); Industrian (%-2,3); Eraikuntzan (%-2,2). Guztirakoan, %0,3 establezimendu gutxiago.

**Establezimendu kopurua, jarduera-adar eta urte arteko aldakuntza-portzentajearen arabera. 2015/01/01**

|                                             | Euskal AE      |             | Araba/Álava   |             | Bizkaia       |            | Gipuzkoa      |             |
|---------------------------------------------|----------------|-------------|---------------|-------------|---------------|------------|---------------|-------------|
|                                             | Kop.           | %           | Kop.          | %           | Kop.          | %          | Kop.          | %           |
| <b>Guztira</b>                              | <b>176.384</b> | <b>-0,3</b> | <b>24.794</b> | <b>-0,6</b> | <b>91.337</b> | <b>0,0</b> | <b>60.253</b> | <b>-0,6</b> |
| Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza      | 6.004          | -7,5        | 1.810         | -6,7        | 2.016         | -3,4       | 2.178         | -11,7       |
| Industria, energia eta saneamendua          | 12.176         | -2,3        | 2.072         | -2,1        | 5.284         | -3,5       | 4.820         | -1,1        |
| Eraikuntza                                  | 20.951         | -2,2        | 2.699         | -3,0        | 10.788        | -0,8       | 7.464         | -3,7        |
| Merkataritza, garraioa eta hostalaritza     | 67.519         | -0,8        | 8.940         | -1,1        | 36.162        | -0,8       | 22.417        | -0,7        |
| Informazioa eta komunikazioak               | 3.290          | 3,7         | 379           | 1,1         | 1.884         | 4,8        | 1.027         | 2,7         |
| Finantza jarduerak eta aseguru-eraketak     | 4.955          | -1,5        | 692           | -3,1        | 2.649         | -1,3       | 1.614         | -1,2        |
| Onibar-jarduerak                            | 2.895          | -2,2        | 216           | -2,3        | 1.707         | -0,9       | 972           | -4,3        |
| Jarduera profesionalak eta lagungarriak     | 28.317         | 1,1         | 3.858         | 1,3         | 15.063        | 1,0        | 9.396         | 1,3         |
| Herri administrazioa, hezkuntza eta osasuna | 17.360         | 3,9         | 2.326         | 5,0         | 9.258         | 3,6        | 5.776         | 3,9         |
| Arte jarduerak eta beste zerbitzu batzuk    | 12.917         | 2,8         | 1.802         | 4,2         | 6.526         | 2,7        | 4.589         | 2,4         |

**Iturria: Eustat. Jarduera ekonomikoen direktorioa**

Establezimendurik gehien, Merkataritza, garraio eta ostalaritzak, %38,3; Jarduera profesional eta lagungarriak %16,1; Eraikuntzak %11,9.

Establezimenduen tamainaren arabera, 2014an, aurreko urtean bezalatsu. Apenas 2.247 establezimenduk -guztirakoaren %1,3k- dauzkaten 50 enplegu edo gehiago; hauen enplegua guztirakoaren %38,9 da. 132.023 establezimendu, ia hiru laurden, ez dira 3 lanpostura heltzen eta enplegu guztiaren %19,3 bakarrik hartzen dute.

Establezimenduen jarduera-adarraren araberrako batez besteko tamainaz, enplegu-kontzentrazioarik handiena, bai Euskal AEn, bai lurraldeetan, Industria, energia eta saneamenduan da. Euskal AEn establezimenduko batez besteko tamaina 14,1 enplegu da. Araban 17,9; Gipuzkoan 14,0 eta Bizkaian 12,6. Administrazio publiko, hezkuntza eta osasungintzan establezimenduen batez besteko tamaina: 14,6 Araban, 10,2 Bizkaian eta 10,7 Gipuzkoan.

## ENPRESAK

Enpresen (establezimenduen jardueraren euskarri, unitate juridiko) %97,7k Euskal AEn dute egoitza; 3.689k estatuen gainerakoan. 80.321 enpresak, erdia pasatxok, Bizkaian dute egoitza; 53.497k (%33,6k) Gipuzkoan; 21.303k (%13,4k) Araban.

Enpresen batez besteko tamainak lehengoan dirau: 5,3 okupatu enpresako, 4,8 establezimenduko. Nortasun juridikoan, bada alderik. Nortasun juridikoaren titularra pertsona fisikoa denean, 1,4 enplegu, bai enpresako, bai establezimenduko; gainerako forma juridikoetarako batez besteko horiek 11,0 eta 8,9 pertsona dira, enpresako eta establezimenduko.

## ENPRESA-DEMOGRAFIA

Errotaziorik handienak: Merkataritza, garraioa eta ostalaritza (alten %31,0, baje %33,6), Eraikuntza (alta guztien %17,0, baja guztien %19,4), Jarduera profesional eta lagungarriak (alta guztien %18,8 eta baja guztien %16,2); guztira 495 establezimendu gutxiago.

### Establezimenduen demografia. Euskal AE. 2015/01/01

| Jardueraren arabera                         | Altak         | Irteerak      | Nortasun juridikoaren arab. | Altak         | Irteerak      |
|---------------------------------------------|---------------|---------------|-----------------------------|---------------|---------------|
| <b>Total</b>                                | <b>16.040</b> | <b>16.535</b> | <b>Guztira</b>              | <b>16.040</b> | <b>16.535</b> |
| Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza      | 590           | 1.076         | Pertsona fisikoa            | 10.687        | 11.165        |
| Industria, energia eta saneamendua          | 729           | 983           | Akziokako elkartea          | 311           | 728           |
| Eraikuntza                                  | 2.729         | 3.204         | Elkarte mugatua             | 3.613         | 3.445         |
| Merkataritza, garraioa eta hostalaritza     | 4.980         | 5.551         | Bestelako elkarteak         | 1.384         | 1.159         |
| Informazioa eta komunikazioak               | 513           | 377           | Bestelako forma juridikoak  | 45            | 38            |
| Finantza jarduerak eta aseguruetak          | 416           | 501           |                             |               |               |
| Onibar-jarduerak                            | 262           | 300           |                             |               |               |
| Jarduera profesionalak eta lagungarriak     | 3.023         | 2.673         |                             |               |               |
| Herri administrazioa, hezkuntza eta osasuna | 1.639         | 1.029         |                             |               |               |
| Arte jarduerak eta beste zerbitzu batzuk    | 1.159         | 841           |                             |               |               |

**Iturria: Eustat. Enpresak sortzearen eta ixtearen estatistika**

Pertsona fisikoaren nortasun juridikoarekin sortutako establezimenduetan gertatzen dena azpimarratu behar: alten %66,6 eta baje %67,5.

Pertsona fisiko diren establezimenduetan dugu enplegatuen alten %43,1 eta baje %38,7. Sozietate mugatuetan alten %30,1 eta baje %32,4.

Establezimenduen tamainaren arabera, geruzarik dinamikoena 2 enplegu edo gutxiagokoa da, ohi bezala. Berak bakarrik alta guztien %91,5 eta baja guztien %90,6 hartu ditu.

Establezimendu handien (50 langile edo gehiagokoen) geruzan alten %0,1 eta bajen %0,2, besterik ez. Aldiz, enplegatuen alta guztien %8,5 eta bajen %13,3.

---

**Informazio gehiago:**

*Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística*

*Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz*

*Prentsa zerbitzua: [servicioprensa@eustat.es](mailto:servicioprensa@eustat.es) Tel.: 945 01 75 62*

*[Euskal enpresen egitura eta demografiari buruzko Prentsa-oharrak](#)*

*[Euskal enpresen egitura eta demografiari buruzko datu-bankua](#)*